

Geure izanari uko



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Lau urteko neskato batek amari mutila izan nahi zuela azaldu zion duela gutxi. Izan ere, suhiltzailea izan nahi du Esmek. Historia hori sarean zabaldu eta telebistara arte egin zuen salto, Bizkaiko emakume suhiltzaileek umearentzat grabatutako bideo ederra dela eta. Itzela izan zen hainbat tokitatik jaso zituen erantzunak. Hainbat emakumek errealtatea erakutsi zioten, zeren eta, errepresentazio publiko eta sozialetik ezabaturik gaudenez, existitzen ez garela ematen baitu. Latza da benetan erreferenterik eza, faltagatik baino harago, emakumeon ezabaketagatik.

Baina ez dut horretan erreparatu nahi, baizik eta Esmeren berbetan ezkutatzeko den fenomeno maltzur batean. Mutila izan nahi duela esateak –neska izanda eta neska sentiturik– bere izaerari, bere buruari, bere funtsezko izanari uko egin nahi/behar diola esan nahi baitu. Bera ez da lehenbizikoa, ezta bakarra ere. Uste baino ohikoagoa da. Eta ukaziotik gorrotora pauso benetan laburra dago.

Ileak lazten dituen pentsamendu hau, hala ere, normaltasunez onarrarazten digute. Seguruenik Esmeren amak ere halaxe egin du: txikitatik izan den pertsona, ezkondukoan, ukatu eta beste

persona bat izatera pasatu da; zeren eta beste baten abizenaz izendatzea hori baino ez baita, geure izana ukatu eta beste bat bihurtu. Izena duen orok baldin badauka bere izana, izenik ez duena, izatez, ez da. Maitasun eta tradizioz moztortzen digute geure buruaren gorroto eta traizioa.

Egia da Espainiako Estatua usadio horretatik at dagoela. Eta horixe da txikitatik gustatu izan zaidan gauzetako bat. Hori eta, momentura arte behintzat, *first lady*-rik egon ez izana. Momentura arte diot. Gaur egun presidente dagoenak orain emaztea jende aurrean pasatzen baitu eta presidente izan nahi dutenek ere gauza bera egiteari ekin baitiote. Emakumeak moda osagarriak bagina bezala. Seguru nago hori egin ezean, Sánchezen emaztea bere kargua uztera behartuta egon ez zatekeela. Baina Begoña Gómez izateari utzi zion *lehen dama*-ren paper huts eta hustua betetzen hasi zenetik. Behin hor sailkaturik, horixe da rol publiko posible bakarra. Nahita egin duen atzerapausoa larrutik ordainarazi dio patriarkatuak.

Baina itzul gaitezen harira, Esmek seguruenik honezkero badaki *girl* berbak, bera izendatzeko ez ezik, edonor irain-

tzeko ere balio duela. Gogoratu, bestela, Always markak egin zuen kanpaina-iragarkia: gauzak *like a girl* egitea txarto, ahul eta lerdo baten moduan egitea omen da edo, behintzat, halaxe irudikatu zuten esperimentuan parte hartu zuten neskek, harrezkero ondo barneratuta baitzeukaten.

Zelakoak izan nahi dugun jakin baino lehenago hasten gara garenaz kontzientzia hartzen. Autokontzientzia hartu eta ni-a deskubritzen dugu: zer garen, eta zer egin ahal dugun. Urtebete pasatxo daukagunean hasten da prozesu hau. Autodefinizioa eta autokontzeptua lantzen hasten gara: nor bere buruaren erreferentzia egiten, gure abilitateak balioztatzen eta geure eraginkortasuna neurtzen. Ez da prozesu bakartia, inguruak gutaz adierazten digunak guztiz baldintzatzen baikaitu, eta ulertu “inguru” moduan 24 ordutan bonbardatzen gaituzten mezu eta irudi guztiak. Ez da harritzekoa Kaliforniako Unibertsitateak berriki egindako ikerketan, aztertutako 48 herrialdeetako milioi bat andre eta gizonen artean autokonfiantza arrakala nabarmena aurkitu izana. Esmek berak, lau urte baino ez dauzkala, badaki neska izateagatik, berez, gutxiago dela. ●